

rutasverdes.araba.eus

INFORMAZIOA ETA TRACKAK ESKURATZEKO/
DESCARGA DE INFORMACIÓN Y TRACKS



Ibilbide berdeen sarea

Red de itinerarios verdes

TURISMO BULEGOA/
OFICINA DE TURISMO

VITORIA-GASTEIZ

☎ 945 16 15 98 / 945 16 15 99

📞 619 07 43 31

✉ turismo@vitoria-gasteiz.org

112
SOS DEIAK

Arabako ibilbide berdeen sarea



Red de Itinerarios Verdes de Álava

araba álava
foru aldundia diputación foral



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"
Eskualde Garapenerako Europar Funtza (EGEF)
"Espazio eragilea modu berri"

Arabako ibilbide berdeen sarea



Red de Itinerarios Verdes de Álava



Zadorrako ibilbide berdea Ruta Verde del Zadorra

araba álava
foru aldundia diputación foral

ZADORRA IBAIA

Zadorra ibaia Urkilla, Altxania, Entzia eta Iturrieta mendilerroetan jaiotzen da, Agurain inguruan, eta 77 km eta gero, Miranda de Ebron isurtzen ditu bere urak. Gasteiz inguratu eta Langraiz Okara bidean sortzen duen paisaia, natura eta kultura ondare betetako ibilbide eder eta lasaia da, gure gozamenerako leku paregabea.

Igaraba, bisoi europarra, martin arrantzalea, ur-zozoa edota amuarraina, haltza, sahatsa edota lizarraren babesean bizi dira, besteak beste. Habitat natural interesgarriak eta babestu beharreko hainbat animalia eta landare aurkitu daitezke ibaiertzeko baso hauetan eta horregatik, Zadorra ibaia, Natura 2000 sarearen barnean dago, Kontserbazio Bereziko Eremu gisa.

Gizakiaren eta uraren arteko harremana ere nabarmena da ibilguan zehar, eta horren adibide dira ibaiaren ertzean dauden ur-errotak eta zubiak.

RÍO ZADORRA

El río Zadorra nace en las sierras de Urkilla, Altxania, Entzia e Iturrieta, en la zona de Salvatierra, y tras 77 km desemboca en Miranda de Ebro. El paisaje que forma al rodear Vitoria de camino a Nanclares de Oca, es un recorrido bello y tranquilo lleno de patrimonio natural y cultural, un lugar único para nuestro disfrute.

La nutria, el visón europeo, el martin pescador, el mirlo acuático y la trucha, viven al abrigo del aliso, el sauce y el fresno, entre otros. En estos bosques de ribera se pueden encontrar hábitats naturales de interés y diversos animales y plantas que necesitan protección, por lo que el río Zadorra forma parte de la Red Natura 2000 como Zona Especial de Conservación.

La relación entre las personas y el agua también es notable a lo largo del cauce, y ejemplo de ello son los molinos y los puentes situados a orillas del río.



Martin arrantzalea
Martín pescador

Lertxuna
Garza


BIDEAN ZEHAR... POR EL CAMINO...

Iruña Okako zubiak:

Ibilbidean zehar interes berezia duten bi zubi zeharkatuko ditugu Iruña Okako udalerrian: Trespuentes eta Billodakoa. Trespuenteseko zubia, kultura-intereseko ondasun bezala izendatuta dago eta egungo herriari izena ematen dio (*transpontem* = zubiaren atzean), XI. mendeko dokumentuetan ageri den bezala. Bestalde, Billodako zubian XV. mendean bukaerako elementu batzuk aurkitu daitezke. Hala ere, nahiz eta biek kalitate arkitektoniko handia izan, ez da erromatar garaiko zantzurik hautematen zubi hauetan.

Los puentes de Iruña de Oca:

A lo largo del itinerario recorreremos dos puentes de especial interés en el término municipal de Iruña de Oca: el de Trespuentes y el de Villodas. El puente de Trespuentes está declarado bien de interés cultural y da nombre al pueblo actual (*transpontem* = detrás del puente), tal y como aparece en los documentos del siglo XI. Por otra parte, en el puente de Villodas se pueden encontrar algunos elementos de finales del siglo XV. Sin embargo, a pesar de la gran calidad arquitectónica de ambos, no se aprecian indicios de la época romana en estos puentes.



Billodako zubia
Puente de Villodas

Langraizko kartzela zaharra:

Kartzela zaharra frankismo garaian eraikitako kontzentrazio esparru izan zen hasieran eta espetxea ondoren. Bertan egondako presoan artean frankismoaren kontra borrokatutakoak, preso komunak eta brigadistak egon ziren, baita gizon homosexualak ere, 1954an eta 1978ra arte homosexualitatea delitu gisa deklaratu ondoren.

Antigua cárcel de Nanclares:

La antigua cárcel fue construida durante el franquismo, edificio que al principio funcionó como campo de concentración y como cárcel después. Entre los presos hubo milicianos que lucharon contra el franquismo, presos comunes y brigadistas, así como hombres homosexuales, después de que en 1954, y hasta 1978, se declarara la homosexualidad como un delito.

Legardagutxi errota:

Gasteiztarrentzat oso ezaguna den "viejo molino" abestiaren protagonista da Legardagutxi errota zaharra. Abestia Alfredo Donnay-ek idatzi zuen.

Molino de Legardagutxi:

El antiguo molino de Legardagutxi es el protagonista de la canción "viejo molino", muy popular en Vitoria-Gasteiz. La canción fue escrita por Alfredo Donnay.



© Archivo del convento de los Hermanos Menesianos



© ATHA DAE (01E-107/33)

YOUTUBE
Viejo molino





EZ AHAZTU:

ZADORRA IBAIA oso eremu sentikorra da; errespetatu zure inguruan dagoen flora eta fauna eta ingurunea mantentzen lagunduko duzu.

NO OLVIDES:

EL RÍO ZADORRA es un espacio muy sensible; respeta la flora y fauna que te rodea y ayudarás a conservar el entorno.



3h 1h aprox. 13,5 km 120 m

km 0

Ibilbidea Gasteizko mendebaldeko industriagunean dagoen biribilgunearen ondoan hasten da, panelaren ondoan. Zadorra ibaiaren ertzaren ondotik doan bidea da jarraitu beharrekoa.

El recorrido comienza junto a la rotonda situada en el polígono industrial al oeste de Vitoria, junto al panel. El camino a seguir es el que discurre junto a la orilla del río Zadorra.

km 3

Krispiñako ur-araztegiaren ondotik pasatu eta gero eskumako bidea jarraitu behar da Margarita parean dagoen bidegurutzean. *Tras pasar junto a la depuradora de Crispijana hay que seguir el camino de la derecha en el cruce, a la altura de Margarita.*

km 4,3

⚠ KONTUZ errepidea gurutzatzerakoan! **¡ATENCIÓN** al cruzar la carretera!

km 5,9

Santa Katalina lorategi botanikora joateko Trespuenteseko zubi erromatarra gurutzatu behar da, eta bestela Iruña Veleiako noranzkoa jarraitu. *Para ir al Jardín Botánico de Santa Catalina hay que cruzar el puente romano de Trespuentes, y si no, seguir el sentido de Iruña Veleia.*

km 8,1

Ibilbidea GR 25arekin elkartzen da Iruña Veleia parean, Billodara bidean tarte batean bananduz baina zubian berriro ere elkartuz. *El recorrido se une al GR 25 a la altura de Iruña Veleia, separándose un tramo en dirección a Villodas pero volviendo a juntarse en el puente.*

km 8,7

Iruña Veleiako aparkalekuaren bukaeran bidea Zadorra ibaira gerturatu eta honen paralelo doan bidetik jarraitzen du. *Al final del aparcamiento de Iruña Veleia el camino se acerca al río Zadorra y continúa por el camino paralelo al mismo.*

km 9,7

GR 25a gure bidetik urruntzen da. *El GR 25 se aleja de nuestro camino.*

km 11,1

Garabo errotara heltzeko desbiderapena. *Desvío para llegar al molino Garabo.*

km 12,4

Encinal dorrera heltzeko desbiderapena. *Desvío para llegar a la torre Encinal.*

km 13,5

Behin Langraiz Okara helduta Camino Real kalea zeharkatu behar da, herria gurutzatzen duen errepide nagusia zebra bidetik igaro eta uraren lorategira heltzeko. Hemen bukatzen da ibilbidea. *Una vez en Nanclares de la Oca hay que continuar por la calle Camino Real para cruzar la carretera principal que atraviesa el pueblo por el camino de cebr y llegar al jardín del agua. Aquí termina el recorrido.*

Santa Katalina lorategi botanikoa Jardín Botánico de Santa Catalina

XIII-XIV. mendeen bitartean eraikitako monastegi honen lorategian hainbat zonalde klimatiko landareak ezagutu daitezke. Antigu monasterio, construido entre los siglos XIII-XIV en cuyo jardín se pueden conocer plantas de diferentes zonas climáticas.



DESBIDERAPENAK


Ibilbidetik asko aldendu gabe hainbat elementu interesgarri bisita ditzakezu, Santa Katalina lorategi botanikoa, Iruña Veleia eta Encinaleko dorrea, besteak beste.

DESVIOS

Sin apartarte mucho del recorrido puedes visitar varios elementos de interés, como el Jardín Botánico de Santa Catalina, Iruña Veleia y la torre de Encinal, entre otros.

Encinal dorrea Torre Encinal

Iruña Okan III. gerra karlistan eraikitako hiru dorreetako bat da. Goiko aldean, telegrafo optiko bat dauka, komunikazioa azkartzeko aparatua. Es una de las tres torres construidas durante la III Guerra Carlista en Iruña de Oca. En la parte superior tiene un telegrafo óptico, aparato para acelerar la comunicación.



Iruña Veleia

Erromatar garaiko hiriaren aztarnategia da. Bertatik pasatzen zen Astorga eta Burdeos lotzen zituen galtzada. Yacimiento arqueológico de la antigua ciudad romana. Por ella transcurría la calzada que unía Astorga con Burdeos.

